

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2.528 abal eman zituen enpresa eta herritarrentzat 2009 eta 2011 urteen artean

273,8 milioi euroko abalekin 688,2 milioi euroko maileguak eman ziren

Jueves, 03 de mayo de 2012

Nafarroako Gobernuaren Nafinco Abala programak (likidezia, enpresa-inbertsioa eta etxebizitza sustatzera bideratutakoa) 2.528 abal eman zituen 2009 eta 2011 urteen artean. Orotara 273.862.153 euroko zenbatekoa zuten abalak eman ziren eta horiei esker enpresa eta herritarrek 688.214.606 euroko maileguak jaso ahal izan zituzten.

Álvaro Miranda

Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eta Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariak agerraldia egin dute gaur goizean Nafinco Abala eta 2012. urtean Sodena enpresa publikoak kudeatzen dituen bi abal programen balorazioa egiteko. Programa horietako batek, 26 milioi euroekin hornitua, enpresen likidezia eta etxebizitza sustatzea du helburu eta besteak, 30 milioi euroko aurrekontua duena, Moderna zigilua duten proiektuen finantzaketa bermatzea.

### Nafinco Abala programaren balorazioa

Nafinco Abalaren programaren baitan Nafarroako Gobernuak emandako 2.528 abaletatik, 1.391 enpresa txiki eta ertainen likidezia hobetzea izan zuten helburu. 102.889.965 euroko balioarekin, enpresa hauek 270.231.613 euroko maileguak lortu ahal izan zituzten. Beste 49k enpresa handien likidezia erraztea izan zuten helburu. 18.909.437 euroko zenbatekoa izan zuten eta horri esker 43.157.675 euroko finantza kredituak jaso zituzten. Kreditu txikien atalean (autonomo, merkataria eta enpresa txikiei bideratua), 21 abal eman ziren, 112.047 euroko zenbatekoarekin, 194.078 euroko maileguetarako.

Bestalde, 521 enpresek erabili zituzten inbertsiorako abalak. Nafarroako Gobernuak, Nafinco enpresa publikoaren bidez, 144.016.514 euro eman zituen hontara eta, horri esker, enpresek 295.460.301 euroko maileguak lortu zituzten.



Miranda lehendakariordea eta Goicoechea kontseilaria prentsaurrean.

Azkenik, 546 herritarrek etxebizitzak erosteko abalak jaso zituzten. 7.934.190 euroko abal hauek 79.170.939 euroko maileguak ahalbidetu zituzten. Abal hauek maileguaren %10-a bermatzen dute. Hori dela eta, maileguak etxebizitzaren balioaren %90-era irits daitezke. Maximoa normalki %80koa izan ohi da.

### **Nafinco Abalaren historia**

Nafinco Abala programa 2009ko martxoaren 2-an jarri zuen abian Nafarroako Gobernuak 300 milioi euroko aurrekontuarekin. Martxoaren 12-an Nafinco enpresa publikoak lankidetzaz hitzarmenak izenpetu zituen zortzi finantza erakunderekin. 2010eko martxoaren 8an programa luzatua izan zen 2011ko abenduaren 30 arte, eta guztira 14 finantza erakunde atxiki ziren, 751 milioi euroko kredituak gorde zituztenak.

### **Sodena 2012 abalen programa**

Sodena enpresa publikoak 2012. urtean Nafarroako Gobernuaren bi abal programa kudeatuko ditu. Horietako batek enpresen likidezia eta etxebizitza sustatzea du helburu. Nafincoren programaren baitan eman ez ziren abalen zenbatekoa eman ahal izango du, orotara 26 milioi euro (Nafarroko Gobernuak onartutako 300 milioien eta Nafinco Abala programaren baitan emandako 274 milioien arteko aldea). Enpresa txiki eta ertainen zirkulatzailerak hobetzera eta etxebizitzaren erosketara bideratuko da bereziki zenbateko hau. Ez dago aurreikusita enpresa handientzat eta kreditu txikientzat abalak ematea.

Besteak, Moderna Abala izenekoa, 30 milioi euro ditu eta Moderna zigilua duten proiektuen finantziarioa bermatzea du helburu.